Conferencia de ciudades hermanadas con el

# Pueblo Saharaui

# Saharar Herriarekin

Senidetutako Hirien Konferentzia



2 de Diciembre
Palacio Villa Suso
Vitoria-Gasteiz

Abenduak 2
Goiuri Jauregia
Vitoria-Gasteiz

## EBAZPENA

Saharako herriak 46 urte daramatza Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan (Aljeria) eta Marokok Mendebaldeko Saharan okupatutako lurraldeetako bizi-baldintza onartezinak jasaten.

Nazio Batuen Erakundeak Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea aitortzen duten ebazpenak behin eta berriz eman arren, konponbidea luzatu egiten da Marokoko Gobernuaren intrantsigentziagatik eta Nazioarteko Komunitatearen pasibotasunagatik, Espainia buru dela. Hala ere, SEADa errealitate eztabaidaezina da, herrialde askok onartzen dutena. Saharako Estatuaren egitura pixkanaka sendotzen joan da, zailtasunak zailtasun.

Udalek, Foru Aldundiek, Batzar Nagusiek eta Eusko Legebiltzarrak, Saharako Herriarekiko euskal elkartasunaren adierazpen instituzional goren gisa, Saharako Estatua sendotzeko prozesu hori bultza eta lagundu dezakete. Horregatik, konferentzia honen deialdia egiten da, EUCOCOn Saharako Estatuaren garapenari laguntzeko Gasteizen 2019ko azaroan egindako tailerrean adostutakoa.

## RESOLUCIÓN

El Pueblo Saharaui lleva 46 años soportando unas condiciones intolerables de vida en los campamentos de población refugiada de Tinduf, Argelia y en los territorios ocupados por Marruecos en el Sahara Occidental.

A pesar de las reiteradas resoluciones de la ONU reconociendo el derecho de autodeterminación del Pueblo Saharaui, la solución se eterniza por la intransigencia del Gobierno Marroquí y la pasividad de la Comunidad Internacional, con España a la cabeza. Sin embargo, la RASD es una realidad incuestionable, reconocida por múltiples países. La estructura del Estado Saharaui se ha ido consolidando paulatinamente, a pesar de las dificultades.

Ayuntamientos, Diputaciones Forales, Juntas Generales y Parlamento Vasco, como máxima expresión institucional de la solidaridad vasca con el Pueblo Saharaui, pueden impulsar y favorecer este proceso de consolidación del Estado Saharaui. Por ello se convoca esta conferencia, acordada en el Taller de apoyo al desarrollo del Estado Saharaui de la 44ª EUCOCO, celebrada en Vitoria-Gasteiz en noviembre de 2019.

Saharako Herriarekin Senidetutako Hirien Konferentzia honen **helburu nagusiak** honako hauek dira:

- Tokiko erakundeetatik Saharako Herriarekiko elkartasuna indartzea.
- Saharako Estatua tokiko eremutik garatzen eta sendotzen laguntzea, errefuxiatuen kanpalekuetan eta SEADeko askatutako lurraldeetan dituen egiturak hobetuz.
- Lankidetza humanitarioa, garapen-proiektuak, zerbitzu publikoak, enpleguaren sorrera, Saharako erakundeen funtzionamendua eta emakumeen eta gazteen protagonismoa indartzea.
- Sahararren eskubide politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak defendatzeko eta sustatzeko ekimen politikoak eta sozialak sustatzea gure herri eta hirietan.
- Erakunde solidarioen arteko egitura eta koordinazio-mekanismoak hobetzea, Sahara Koordinazio Unitatea (SKU-Euskal Fondoa) erakundearen bidez, eraginkorragoak izateko.

Horretarako, tokiko agintariek eta gizarte-erakundeek, kudeaketaren eta administrazio publikoen ordezkariek eta Saharako Parlamentuko ordezkaritza batek parte hartuko dute.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Gasteizko Udalari Saharar Herriaren eta Euskal Herriaren arteko topaketa solidario honetarako emandako erraztasunengatik.

Los **principales objetivos** de esta Conferencia de Ciudades Hermanadas con el Pueblo Saharaui son:

- Fortalecer la solidaridad con el Pueblo Saharaui desde las instituciones locales.
- Contribuir al desarrollo y consolidación del Estado Saharaui desde el ámbito local, mejorando sus estructuras en los campamentos de personas refugiadas y en los territorios liberados de la RASD.
- Incrementar la cooperación humanitaria, los proyectos de desarrollo, los servicios públicos, la creación de empleo, el funcionamiento de las Instituciones Saharauis y fortalecer el protagonismo de las mujeres y la juventud.
- Promover en nuestros pueblos y ciudades iniciativas políticas y sociales de defensa y promoción de los derechos políticos, económicos, sociales y culturales de la población saharaui.
- Mejorar la estructura y los mecanismos de coordinación entre las instituciones solidarias, a través de la Unidad Coordinación Sahara (UCS-Euskal Fondoa), para ser más eficaces.

Contamos para ello con la participación de autoridades locales y de las organizaciones sociales, de representantes de la gestión y administraciones públicas y de una representación del Parlamento saharaui.

Agradecemos al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz las facilidades dadas para acoger este encuentro solidario entre el Pueblo Saharaui y el Pueblo Vasco.